

## **5.- ELENA ETXEGOYEN GAZTELUMENDI**

Irunen jaio zen duela 50 urte. Ezkondua dago eta bi seme-alaba ditu.

Zuzenbidean lizentziatua da, 20 urte baina gehiagoko esperientzia profesionalarekin.

Bi agintalditan zehar (1999-2003, 2003-2007) EAJ-PNV/EA Udal Taldeko bozeramailea izan da eta 8 urtez Gorte Orokorretako Senataria (2000-2004, 2004-2008). Kooperazio Deszentralizatuaren azterketarako txostenaren erredakzioan parte hartu du, baita Lekuko finantziazioaren azterketaren erredakzioan ere.

Bere talde parlamentarioan, Atzerriko gaietaz eta inmigrazioa eta mendebaldeko Saharako gatazkekin lotutako gaietaz arduratu da, “Sahararentzat bakea” talde parlamentario arteko bozeramaile eta koordinatzailea izan da Espainiako Senatuan (VII. Legealdian).

Saharako herriarekin konprometituta, Mendebaldeko Sahararen aldeko Juristen Elkarteko kide da eta horrekin lotutako erakundeetako (WSRW, FEDISAH) laguntzaile iraunkorra, baita Sahararekin Elkartasuna adierazten duten estatu arteko Erakunde Koordinadorako partaide ere.

Bidasoa eskualdeko eta Euskal Herriko Komunikabide desberdinetako solasaldietan eta mahai-inguruetan parte hartzen du (Ser Irratian eta Onda Vascan).

Irakurketa eta mendia bere bi zaletasun nagusiak dira. Musika, historia, ia ekipajerik gabeko bidaiak, bazkalondo luzea... eta Irun, dagoen lekuan dagoela, munduko bere txokoa.